Azpeitiko Udala

MUNOAUNDI AZTARNATEGIAN EGIN BEHARREKO JARDUKETEN PROIEKTUKO LAN ARKEOLOGIKOAK EGITEA (4. FASEA) ZERBITZUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA. (568K)

AURREKARIAK

Aurrekariak azaltzen dira eta aztarnategian egindako jarduerak zerrendatzen dira, azken urteotan egindako ikerketen egoeraren berri izateko.

Duela 31 urte aurkitu zuten Burdin Aroko herri harresitua Munoaundin (Azkoitia-Azpeitia). Munoaundi Burdin Aroko herri harresitua da. Aztarnategia 1995ean aurkitu zen, eta 2003an Eusko Jaurlaritzak Monumentu Multzo gisa izendatu zuen.

Aldi luze honetan hainbat saiakera egin dira ikerketa arkeologikoaren arloan, garrantzi ezberdinekoak, guztiak ere helburu bakarrarekin, aztarnategi honen historia ezagutzea eta berreraikitzea.

Azken urteetan, Urola Erdia Bultzatu eta Garatzeko Azpeitiko eta Azkoitiko Udalek beren udalerrietan kokatuta dagoen MUNOAUNDI aztarnategia kudeatzeko lanak burutu dituzte.

Kudeaketa-lan horiek hainbat fasetan egin dira. Zehazki, 2006an ikerketa arkeologikoko proiektu orokor bat jarri zen abian MUNOAUNDI Burdin Aroko herri harresituan, eta 2006 eta 2013 artean proiektu orokorraren lehen fasea gauzatu zen. 2014an eta 2019an, berriz, 2. faseari dagozkion jarduketak egin dira. 2020 eta 2021ean 2. faseko jarduera batzuk amaitu ziren. Era berean, 3. faseari legokiokeen hondeaketa-proiektua aurrera eraman da 2022, 2023, 2024 eta 2025 urteetan. Munoaundiren izaera monumentala ardatz hartuta, azken urteotan hura ikertu, dokumentatu, kontserbatu eta balioan jartzera zuzendutako lan-ildo bat garatu da.

Horregatik, aurkezten den proiektuak bide horri jarraikortasuna eman nahi dio, datozen hiru urteetan gauzatu beharreko lanen oinarriak finkatuz, plegu honen jarraibideen baitan.. Aldi berean, aurreko faseetan egindako lanen emaitzak osatu eta sendotzeko balioko du, bereziki 2. fasean abiatutako helburuak osatzen laguntzeko.

Munoaundiko aztarnategian egiten diren arkeologia-lanekin jarraitzeko, fase berri honetako lehentasuna ez da soilik ikerketa-galdera jakin batzuei erantzutea, baizik eta indusketaren zikloa behar bezala ixtea eta aztarnategiaren etorkizuneko aurkezpen publikorako baldintzak prestatzea.

SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30

Horregatik, proiektuak uztartu egingo ditu azken jarduketa arkeologikoak, kontserbazio-neurriak eta musealizazio-prozesuaren lehen urratsak, Munoaundi herri harresitua ondare gisa babestu eta herritarren eskura jartzeko.

Beraz, egin beharreko jarduketek kontuan hartuko dituzte aurretik egindako lanak.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea MUNOAUNDI aztarnategian dagoen orubean arkeologia-lanak egitea, eta hurrengo 3 urteetan egin beharreko jarduketen egutegia ezartzea (2026, 2027, eta 2028 urteen arabera bereizita). Jarduketa horiek 4. fasea amaitzen dute eta honako hauek dira:

- Jarduketa-programan adierazitako lanak egitea.
- Urte bakoitzeko azaroaren 15a baino lehen egindako jardueren memoria aurkeztuko da, bai eta hurrengo urtean egingo diren lerroak ere.

2.- KONTRATATZEKO ZERBITZUEN ETA LANEN EZAUGARRIAK

Indusketa lanak egin behar den eremua Munoaundi herri harresitua da, Azpeitia eta Azkoitia artean dagoena. Bere kokapenak izaera estrategikoa du, bailara osoaren kontrola ahalbidetzen baitu.



SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30

Hona hemen koordenatuak:


UTM 30T ETRS89 557404, 4779231, 381m



Indusketa eremuak plastikoz estalita daudenak dira, eta hondeaketa-eremu gisa identifikatuta daude; horietako bat ipar-ekialdean dago, bestea hego-ekialdean.



SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30



Indusketa mendiaren goialdean dago eta 6,5 Hektarea ditu. Herria harresi batez inguratuta dago. Gaur egun harresi hori eraitsita dago eta lurpean 2 metrora dagoen ezponda bat besterik ezin izan da atzeman.

3.- KONTRATATZEKO ZERBITZUEN ETA LANEN EDUKIA

Kontratatu beharreko arkeologia-zerbitzu eta lanen edukiak kontuan plegu honek ezarritako ildoak kontuan hartu beharko ditu. Hala ere, lanen garapenen arabera sortu ahal daitezkeen jarduera ildoak kontuan hartuta egokitzat jotzen diren lanak ere egin ahal izango dira. Era berean, aurkeztu beharreko aurreproiektuak metodologia hori bera jarraitu beharko du.

SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30

Munoaundi aztarnategian dagoen orubean arkeologia-lanak egitea, eta hurrengo 3 urteetan egin beharreko jarduketen egutegia ezartzea (2026, 2027 eta 2028 urteen arabera bereizita). Lan arkeologikoak urtero uda garaian, edozein kasutan azaroak 15a baino lehen.

0. Atala - Fitxa teknikoa

1. Atala - Aurpezkena

2. Atala - Deskribapena eta kokapena

3. Atala - 4. Fasearen helburuak

4. Atala - Ikerketa taldea

5. Atala - Metodologia

6. Atala - Dibulgazioa

7. Atala - Egutegia eta plangintza

8. Atala - Aurrekontua

0. Atala - Fitxa teknikoa

Fitxa teknikoaren edukia honako hau izango da:

a) KONTRATUAREN XEDEA
b) GARAI HISTORIKOA
c) AZTARNATEGI-MOTA
d) KOORDENATUAK
e) JARDUERA ARKEOLOGIKOA
f) ERAKUNDEA
g) IKERTU BEHARREKO TOKIA
h) DATAK
i) ZUZENDARITZA
j) FINANTZIAZIOA
k) OINARRI TOPOGRAFIKOA

1. Atala - Aurkezpena

SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30

Aurkezpenaren betebeharra ikerketaren helburua labur-labur azaltzea izango da. Orain arte aztarnategiko egiturak ikertu dira, haien ezaugarriak eta Gipuzkoako Burdin Aroko bizimoduak hobeto ezagutzeko asmoz.

Bestalde, Brontze Aroaz dugun ezagutzari buruzko dibulgazio lana ere egin da herritarrengan.

2. Atala - Deskribapena eta kokapena

Indusketa programa egin behar den eremua Munoaundi herri harresitua dago, Azpeitia eta Azkoitia artean dagoena. Bere kokapenak izaera estrategikoa du, bailara osoaren kontrola ahalbidetzen baitu.

Hona hemen koordenatuak:

UTM 30T ETRS89 557404, 4779231, 381m

3. Atala - 4. Fasearen helburuak

Munoaundi herri harresitua Kultur Ondasun izendatua izan zen, 2003ko urriaren 7ko 234/2003 Dekretuaren bidez Monumentu Multzo izendapenarekin. Horregatik, proiektu honetako ikerketa-ildoek horiek ezagutzea, berreskuratzea eta modu egokian babestu, izan behar dute helburu, aztarnategiaren musealizazio-prozesuaren lehen urratsak ezartzen, gizarteari aurkezteko oinarriak finkatzen, ondasun kulturala baita.

Aztarnategi horrek sortzen duen interesa honako alderdi hauek betetzera bideratu behar da:

a) Landa-lanak: Aztarnategian aurreikusitako azken indusketa arkeologikoen xedea da oraindik behar bezala dokumentatu gabe dauden edo erabat osatu gabe geratu diren eremuen erregistro arkeologikoa osatzea. Horretarako, esku-hartze arkeologikoen bidez beharrezko dokumentazio tekniko eta grafikoa egingo da, unitate estratigrafikoen erregistroa osatu eta eguneratuko da, eta aztarnategitik eratorritako datu arkeologiko guztiak modu sistematiko eta estandarizatuan bilduko dira. Jarduketa horien emaitzek aukera emango dute indusketa-faseari amaiera emateko beharrezkoa den informazio zientifiko eta administratibo osoa eskuratzeko.

b) Laborategi-lanak: Laborategiko lan espezializatuak gauzatuko dira, azken indusketa-kanpainetan nahiz aurreko esku-hartzeetan berreskuratutako

SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30

material arkeologikoa eta sortutako dokumentazioa aztertu, sailkatu eta prozesatzeko. Era berean, bildutako datu guztien azterketa sakon eta sistematikoa egingo da, oraindik irekita dauden ikerketa-ildoak garatu eta amaitzeko, proiektuaren emaitza zientifikoak sendotu eta zabaltze aldera. Jarduketa horien bidez, aztarnategiaren interpretazio historiko-arkeologikoa osatu eta haren ezagutza-maila nabarmen handitzeko beharrezkoa den oinarri dokumental eta analitikoa finkatuko da.

Aztarnategiaren memoria zientifikoa eta interpretazio orokorra prestatuko dira, eta musealizazio-prozesurako oinarri zientifiko eta teknikoak ezarriko dira.

4. Atala – Ikerketa taldea

Proiektuaren gauzatze egokirako ezinbestekoa izango da ikerketa-talde espezializatu baten parte-hartzea, Munoaundiko aztarnategiaren ezaugarri kronologiko eta arkeologiko espezifikoetara egokitua. Talde horrek, gainera, Burdin Aroko aztarnategietan edo, oro har, Metal Aroetako testuinguru arkeologikoetan esku-hartze eta ikerketa-lanetan esperientzia tekniko eta zientifiko egiaztatua izan beharko du.

4.1 Ikerketa-taldearen kaudimen teknikoa - Zuzendaritza

Jardueren Zuzendaritza arkeologo batek egingo du, Geografian eta Historian lizentziadunak edo antzekoak, Burdin Aroko aztarnategietako indusketa arkeologikoen norabidean bi (2) urteko esperientzia frogagarria duenak.

Proiektu arkeologikoak zuzentzen, oro har, gutxienez bost (5) urteko esperientzia dutenak. Ingurunean, eta bereziki Munoaundiko aztarnategian aurreko indusketa-kanpainetan zuzendaritza-taldean parte hartu izana.

4.2. Ikerketa-taldea

Ikerketa-taldea osatzen duten pertsonen zerrenda egingo da, bertan adieraziko da kide bakoitzaren:

- Izena eta titulazioa
- Espezializazio edo ikerketa-arloa
- Proiektuan izango duen eginkizuna
- Sexua

Ikerketa-taldearen osaerak bermatu beharko du proiektuan aurreikusitako lanak: landa-lanak, laborategi-lanak, dokumentazio-lanak, azterketa espezializatuak eta azken memoria zientifikoa behar bezala gauzatu ahal izatea.

SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30

5. Atala - Metodologia

Egin beharreko lan bakoitzean erabili beharreko metodologia ezarriko du jarduera-programak, baita egiten diren aurkikuntzak interpretatzeko eta erregistratzeko ere.

6. Atala - Dibulgazioa

Munoaundi kultura-ondarea denez, bertan egindako jardueren emaitza zabaldu egin behar da. Horregatik, proiektuak egokitzat jotzen dituen zabalkunde-jarduerak zerrendatu beharko ditu.

7. Atala - Egutegia eta plangintza

Jardueren egutegi zehatz bat ezarriko da, horietako bakoitza zer alditan egingo den zehaztuta.

Era berean, kontratuak irauten duen bitartean, urte bakoitzeko azaroaren 15a baino lehen, urteari buruzko urteko memoria bat bidaliko da. Memoria horretan, egindako jarduerak zehaztuko dira, baita aurreikuspenen betetze-mailaren ebaluazioa eta hurrengo urtean egin beharreko jardueren proiekzioa ere.

Kontratua amaitzean, esleipendunak azken memoria bat aurkeztu beharko du, kontratuaren iraunaldian egindako jarduketa guztiak jasotzen dituena, baita horien ebaluazioa eta etorkizunean egin beharreko jardueren proposamena ere. Kasu honetan ez da urte hasierako hiruhilabeteko memoria aurkeztuko, azken memoria nahikoa izango delako.

8. Atala - Aurrekontua.

Aurrekontuan bereizitako kontzeptuak banakatuko dira, bai eta kontzeptu horien baturatik ateratzen den BEZa eta guztira ateratzen den BEZa ere, BEZa barne.

Azpeitian, sinadura elektronikoaren datan

Héctor Borge Chozas
Azpeitiko Udaleko Kultura Saileko Arduraduna

EKS | CSV: SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	568K Pliegu Teknikoak
CSV/EKS:	SINA77b1ba12-076b-43d4-b629-2557e8321f30

Digitalki sinatua:

Azpeitiko Udala

Hector Borge Chozas
Kultura Arloko Teknikaria
Data: 2026/06/09 14:01:56